


E



LITURGIA
CEREMONIALIS

LITURJI-GORATZARREAK

Etxebarria'tar Juan Anjel'ek
lateratik euskeratuta

S . Anton'go Katekesia
Euskal - argitalpenak

A G E R T U T A K O I D A Z T I A K :

- 1 - Phedro'ren Alegiak I
- 2 - Martial'en Ziri-Bertsoak I
- 3 - Phedro'ren Alegiak II
- 4 - Fatima'ko Ama Birjiña ta Umeak
- 5 - Euskal Iztegi Laburra (A)
- 6 - Esopo'ren Alegiak I
- 7 - Agustin Deunaren Eskutitzak I
- 8 - Gurutz - Bidea
- 9 - Phedro'ren Alegiak III
- 10 - Eleiza ta Kristau ez diran beste erlijioak
- 11 - Perrault,en Ipuiñak (2-garren argitalpena)
- 12 - Gizarte artu-emonetako bideak
- 13 - Apuntes de Vascuence - Segundo Curso
- 14 - Lope de Vega - Bakar - Autuak
- 15 - Liturji - Goratzarreak.

Depósito Legal: BI-940-1966

Gráficas Ellacuria-Bilbao

LITURJI - GORATZARREAK

Eguneko orduen arabera antolatutako Eliz-otoidian, goratzarreak lirikar-gaia, norberatasun ta biotzondoz igurtzia, damoskue.

Eresiak, igarle-ekutu-gurtza ta eriotz-ondoko bizitzare-kiko giroan bilduta bezela dagerz. Goratzarreok, barriz, otoi-za ta soiñu-era berezia dabe. Litrurji-olerkiak doguz, itzez eta soiñuz berariz onduak.

Arrendiaren liturji-otoikera gorapenezkoa da. Ori dala-ta, goratzarreok eleder-idazkitzat baiño geiago abeskitzat jo geinkez. Irakurgaietan, eresi ta Idazteun-ataletan, Jainkoak itz egiten dautso auzpez dagokion eliztarren batzarrari. Erantzun-moduan, eliztar-batzarrak kantuzko otoi au egiten dautso Jaungoikoari. Goratzarreak Agustin Gurenak aipatutako maitezko erantzuna dira: "Cantare amantis est".

Eleder-idazkiok iturri bi oneitan dabe sorburua: eguneko jaia-dala-ta, ospatzen dan liturji-esku tuan ta otoidiaren orduak gogora dakarskun gogaian. Bitzuok barruko sentipe-nak kantuz emotera bultzatzen gaitue.

Edertasunari gagokiozola, ederrak be ederrak dira goratzarreak, osoan artuta. Deunak, Doipuruak, erregeak, gotzaiñak, olerkariak-eta egiñak dira; norberaren aintza bilitu barik, gero. Orregaitik askotan ez dogu egilleen izenik ezagutzen. Olerki, maitasun ta gogo alai-jaieratsuaren era-kusgarri dira. Eleizaren gogo ta erti-ondasun bikaiña.

Liturji-abesti oneik oso urrun dabilz gaurko olerki-egikeratik. Gaur, askotan, oskidea nai izaten da, igikera alde batera itxita. Goratzarreak, aldiz, igikeraren ardatzan dabilz; oskidetza baztertuta, oraintsuko olerkietan izan ezik.

Liturjiko beste itzak bezela, oneik ere, egillearen idaztankeraz gaiñera, Idazteunean dedate, baitik bat. Ortik idaztankera barria sortzen da: sorkaldeko ta klasikuaren artekoa. Sartaldeko kulturaren eta kristau anaidien gogo-bizitza sakonaren emaria.

Euskeratzailleak

LITURJI - GORATZARREAK

Itzaurreko ta geroko jakingarriak, Estibaliz'ko Aita Anjel Sasia Beneditarrari zor dautsoguz. Berak erderaz azaldu eustazan ta nik euskeraz jarri.

Aurora caelum purpurat,
Aether resultat laudibus,
Mundus triumphans jubilat,
Horrens avernus infremit:

Rex ille dum fortissimus
De mortis inferno specu
Patrum senatum liberum
Educit ad vitae jubar.

Cujus sepulcrum plurimo
Custode signabat lapis,
Victor triumphat, et suo
Mortem sepulcro funerat.

Sat funeri, sat lacrimis,
Sat est datum doloribus:
Surrexit extinctor necis,
Clamat coruscans Angelus.

Ut sis pernne mentibus
Paschale, Jesu, gaudium,
A morte dira criminum
Vitae renatos libera.

Deo Patri sit gloria,
Et Filio, qui a mortuis
Surrexit, ac Paraclito,
In sempiterna saecula.
Amen.

Goizaldez zerua gorri,
aizean poz-abestiak.
Lurra, abestiz, garailari.
Su-leizean izu-otsak.

Errege andiak, baiña,
eriotzaren altzotik
Gurasoen batz-bikaiña
bitztara dakar onik.

Aren illobia arriz
eta gudariz itxia.
Oin nausi; Erio'k, berriz,
arenean du obia.

Aski da negar-malkorik,
aski da miñik, Erio-
iltzaillea da bizturik,
aingeruak, argiz, dio.

Gaizkatu, Josu, bizira
birjaio geranok, oben-
eriotzetik. Gogora
zakiguz, Pazko-Atseden.

Jaungoiko Aitari ospe,
illen artekit biztu dan
Ari, Bialduari be,
betiko gizaldietan.

Egille-izenik gabekoa. VI-garren gizaldikoa ei da. Urbano VIII.-garren Doipuruak goratzarreak azterta ta aldatzeko agindu eban, XVII-garren gizaldian. Lan negargarria egin eben. Olerki ezerezak zirala uste, apaingarriz beintzat, eta latera ikutuaz jaiera-kutsua galdu.

Aurora jam spargit polum.
Terris dies illabitur.
Lucis resultat spiculum.
Discedat omne lubricum.

Phantasma noctis exsulet.
Mentis reatus corruat.
Quicquid tenebris horridum
Nox attulit culpae, cadat.

Ut mane, quod nos ultimum
Hic deprecamur cernui,
Cum luce nobis effluat,
Hoc dum canore concrepat.

Deo Patri sit gloria,
Ejusque soli Filio,
Cum Spiritu Paraclito,
Nunc, et per omne saeculum.
Amen.

Eguantzak goian dirdai;
eguna dator lurrera.
Argi-izpiak zabal nunai:
Gaizkia bijoa atzera.

Gau-mamua urrun bedi,
barne-loiai lekurik ez.
Gabeko obena, izugarri-
illuna, doala iges.

Orain auspez daskaguna
lenbaitlen ager daitela,
argiagaz bat, gugana,
eresi au eman-ala.

Jainko Aitari jai egin,
Bere Seme Bakarrati,
Gogo Gurenaz bat. Orain
eta beti. Ala bedi.

III

Ecce jam noctis tenuatur umbra,
Lux et aurorae rutilans coruscat:
Suplices rerum Dominum canora
Voce precemur.

Ut reos culpae miseratus omnem
Pellat angorem, tribuat salutem,
Donet et nobis bona sempiternae
Munera pacis.

Praestet hoc nobis Deitas beata
Patris, ac Nati, pariterque Sancti
Spiritus, cuius resonat per omnem
Gloria mundum.

Amen.

III

Gabeko illuna doa makaltzen.
Egantzaren argiak diz-diz
dagi: Otoitzu dezagun gauzen
Egillea abots leun ta eresiz.

Errudunokaz errukiturik,
beldur guztia ken dezaigula;
eman bezaigu osasun; baitik
bat, azken-bako doai zabala.

Jaungoiko onak eman bezaigu
au: Aitak eta Semeak, baita
Goteunak ere; mundurik mundu
beroiен aintza entzuten da-ta.

X-garren gizaldian, beneditarrak egiña.

Jesu, dulcis memoria,
Dans vera cordis gaudia:
Sed super mel et omnia,
Ejus dulcis praesentia.

Nil canitur suavius,
Nil auditur jucundius,
Nil cogitatur dulcius,
Quam Jesus Dei Filius.

Jesu, spes paenitentibus,
Quam pius es petentibus!
Quam bonus te quarentibus!
Sed quid invenientibus?

Nec lingua valet dicere,
Nec littera exprimere:
Expertus potest credere,
Quid sit Jesum diligere.

Sis, Jesu, nostrum gaudium,
Qui es futurus praemium:
Sit nostra in te gloria,
Per cuncta semper saecula.
Amen.

Josu, oroigarri gozo,
biotzaren egizko poz-
emoille; eziaren gain
eztia, Zugaz ezkeroz.

Abes-gai bigunik ez da,
ez da soñu pozgarrik,
gogai gozorik be ez, Josu
Jainko-Semea lakorik.

Josu, garbaidunentzat poz,
eskaleentzat adeitsu,
billarientzat onbera,
ta atzemailleentzat... zertsu?

Ezin leiteke miñaz,
ezta idazkortzaz be, esan.
Oar-ikasiak daki
Josu maitatzea zer dan.

Gure geroko saria
zaitugun Josu, gure poz
izan zaite. Gure aintza
bedi Zuregan betikoz.

Bernarta Deunari egozten yakon «Jubilus de Nomine Jesu» orren atal bat. Berandu samar sortua da (XIII-garren gizaldian edo). Ori dala-ta, lengoak eleiz-otoidiaren izateaz baterago ba'etozan, one-tan norberaren biotz-beratasuna nabarmenago da.

Nocte surgentes vigilemus omnes,
 Semper in psalmis meditemur, atque
 Voce concordi Domino canamus
 Dulciter hymnos.

Ut pio Regi pariter canentes,
 Cum suis Sanctis mereamur aulam
 Ingredi caeli, simul et perennem
 Ducere vitam.

Praestet hoc nobis Deitas beata
 Patris, ac Nati, pariterque Sancti
 Spiritus, cuius resonat per omnem
 Gloria mundum.
 Amen.

Gabean jaiki ta gauden ernai.
 Ari gaitezen eresigintzan.
 Gora dezagun gure Jauna, tai
 gabe, gozoro danok batean.

Errege biotz-bera oneri
 abestu, bere deunekin goiko
 bizitokian sartuz, merezi
 dezagun bizi bera betiko.

Jaungoiko onak eman bezaigu
 au: Aitak eta Semeak, baita
 Goteunak ere; mundurik mundu
 beroien aintza entzuten da-ta.

X-garren gizaldiko beneditar batena.

Nox, et tenebrae, et nubila,
Confusa mundi et turbida:
Lux intrat, albescit polus:
Christus venit: discedite.

Caligo terrae scinditur
Percussa solis spiculo,
Rebusque jam color reddit,

Vultu nitentis sideris.
Te, Christe, solum novimus:
Te mente pura et simplici,
Flendo et canendo quaesumus,
Intende nostris sensibus.

Sunt multa fucis illita,
Quae luce purgantur tua:
Tu, vera lux caelestium,
Vultu sereno illumina.

Deo Patri sit gloria,
Eiusque soli Filio,
Cum Spiritu Paraclito,
Nunc, et per omne saeculum.
Amen.

Gau-illunpe ta odoiak,
munduko neste ta zikin:
ortzean argi-zirrintak
dagerz. Kristo da: alde egin.

Lur-illuntasuna urratu
du eguzkiak bere izpiz.
Dagoneko margoz ditu
eguzkiak gauzak, argiz.

Kristo, Zu zauzkagu bakar
ezagun. Gogamen xaloz
gaituzu, soiñu ta negar:
Zentzunok Zuretzat begoz.

Ba-da guzurkeri aski,
Zerorrek garbi-bearrez.
Zeruko egizko argi:
Begira arpegi barez.

Jainko Aitari jai egin,
Bere Seme Bakarrari,
Gogo Gurenaz bat. Orain
eta beti. Ala bedi.

VII

Pater superni luminis,
Cum Magdalena respicis,
Flammas amoris excitas,
Geluque solvis pectoris.

Amore currit saucia
Pedes beatos ungere,
Lavare fletu, tergere
Comis, et ore lambere.

Astare non timet Cruci,
Sepulcro inhaeret anxia,
Truces nec horret milites:
Pellit timorem caritas.

O vera, Christe, caritas,
Tu nostra purga crimina,
Tu corda reple gratia,
Tu redde caeli praemia.

Patri, simulque Filio,
Tibique, Sancte Spiritus,
Sicut fuit, sit jugiter
Saeculum per omne gloria.
Amen.

VII

Goiko Argitasun-Aita,
Magdalena begiratuz
maitetasun-garrak sortu,
bular otzak pizten dozuz.

Maitasunez jota doa,
gantzuz, zure oñietara,
malkoz garbitu, adatsez
legortu, mosukatzera.

Gurutz-ondoan beldurge,
illobi-ondoan arbin;
gudariak gorabera,
maitasunak beldurra urrin.

Kristo, egizko maitasun,
ken gure oben-ezaña;
biotzak eskerrez bete,
eman zeruan ordaña.

Aitari ta Semeari,
Zuri, Goteun orrerri, len
bezela, azkengabeko
aintza mendez mende. Amen.

Roberto Belarmino'k (S. J.) XVII-garren gizaldian egiña.
Barroko-garaian agertu baitzan, liturji-eredutzat ezin geinke artu.

VIII

Quicumque Christum quaeritis,
Oculos in altum tollite:
Illic licebit visere
Signum perennis gloriae.

Illustre quiddam cernimus,
Quod nesciat finem pati,
Sublime, celsum, interminum,
Antiquius caelo et chao.

Hic ille Rex est gentium
Populique Rex judaici,
Promissus Abrahae patri
Ejusque in aevum semini.

Hunc, et Prophetis testibus
Iisdemque signatoribus,
Testator et Pater jubet
Audire nos et credere.

Jesu, tibi sit gloria,
Qui te revelas parvulis,
Cum Patre, et almo Spiritu,
In sempiterna saecula.
Amen.

VIII

Kristo'ren billa zabilte?
Begiak goian ezarri.
Bertan ikusiko azken-
bako aintza-ezaugarri.

Au ikuskizun ederra!
Ezin du azkenik izan:
andi sakon, mugagabe,
ortze-leizak baiño len zan.

Emen, Errien Errege,
juduen erriarena,
Aita Abraham'i ta beronen
ondorengoa emana.

Berari entzun, siñistu.
Orra, Aita lekuko, guri
agindua, Igarlek
lekuko ta ziñaldari.

Apalen ikerle, Josu,
aintza Zuri, Gogo Done
Biziarrazleari ta
Aitari, betiko. Olantxe.

IV-garren gizaldian, Prudentzi olerkariak asmatua.

Salvete, Christi vulnera,
Immensi amoris pignora,
Quibus perenni rivuli
Manant rubentis sanguinis.

Nitore stellas vincitis,
Rosas odore et balsama,
Pretio lapillos Indicos,
Mellis favos dulcedine.

Per vos patet gratissimum
Nostris asylum mentibus;
Non huc furor minitantum
Umquam penetrat hostium.

Quot Jesus in praetorio
Flagella nudus excipit!
Quot scissa pellis undique
Stillat cruxis guttulas!

Agur, Kristo'ren zauriok,
maitasun-emari bikain!
Dirdaidun odol-ibaiak
jauzika doaz zuon gain.

Izarren aldean argi;
gantzta arrosai usaiñez,
ezti-bitxai balioz,
egin dautsezue gaiñez.

Gure gogoak zuengan
aterpe gozo. Ez dator
bein be bertoraiño etsai-
taldea, asarre-zemakor.

Jesus'ek auzitegian,
billoisik, zigorkada aunitz
artu. Narru ebagian
odol-tantakadak diz-diz.

Frontem venustam proh dolor!
Corona pungit spinea,
Clavi retusa cuspide
Pedes manusque perforant.

Postquam sed ille tradidit
Amans volensque spiritum,
Pectus feritur lancea,
Geminusque liquor exsilit.

Ut plena sit redemptio,
Sub torculari stringitur;
Suique Jesus immemor,
Sibi nil reservat sanguinis.

Venite, quotquot criminum
Funesta labes inficit:
In hoc salutis balneo
Qui se lavat, mundabitur.

Bekoki agurgarria
arantzaz inguraturik.
Au samiña! Untze motzak
esku-oiñak zulaturik.

Gogo onez azkenengo
arnasa emanda, lantzak
zulatzen dio bularra
ta iretzen dira ur-odolak.

Jesus tolarean: gure
erospena bete daiten,
bere buruaz aztuta,
ez du odolik gordetzen.

Zatozte, oben-orbanez
zaudeten guztiok. Ikuz-
tegi osagarri ontan
sar, ta garbi izango, barruz.

Te lucis ante terminum,
Rerum Creator, poscimus,
Ut pro tua clementia
Sis praesul et custodia.

Procul recedant somnia,
Et noctium phantasmata;
Hostemque nostrum comprime,
Ne polluantur corpora.

Praesta, Pater piissime,
Patrique compar Unice,
Cum Spiritu Paraclito
Regnans per omne saeculum.
Amen.

Eguna amaitu baiño len,
diranon Egille, zure
errukiz zakiguz, arren,
zuzendari ta zaitzaille.

Ametsak bijoaz urrun,
gabeko iratxoak bardin.
Etsaia geldi bedi illun,
soiñak ez ditzala ezain.

Bai, arren, Aita onbera,
ta Aitaren ideko Bakar;
Gogo Gurenaz batera
Errege, urteetan zear.

IX-garren gizaldian, beneditar-lekaidetxean egiña. Klasiku-zaleen ikutuak berau be aldatu eben.

GORATZARREEN BILLABIDEA

laterazko izen-buruz

<u>Izenak</u>	<u>Orrialdeak</u>
Aurora caelum purpurat	8
Aurora jam spargit polum.	10
Ecce jam noctis tenuatur umbra. . . .	12
Jesu, dulcis memoria	14
Nocte surgentes	16
Nox, et tenebrae, et nubila	18
Pater supernae luminis.	20
Quicumque Christum quaeritis	22
Salvete, Christi vulnera	24
Te lucis ante terminum	28

Azal-irudia: Erretolaza'tar Joseba Andoni'rena.